

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SARE LOKAL BATEAN GORABEHEREN EGIAZTAPENA ETA KONPONKETA (zeharkakoa)	Iraupena	70
		Baldintzatua	
Kodea	UF0855		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Sistema mikroinformatikoak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Sare lokaleko elementuen ezarpena (zeharkakoa)	Iraupena	160
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sare lokalaren nodoen instalazioa eta konfigurazioa (zeharkakoa)	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0220_2 SARE LOKALEKO ELEMENTUAK INSTALATZEA, KONFIGURATZEA ETA EGIAZTATZEA EZARRITAKO PROZEDUREN ARABERA gaitasun-ataleko LB2 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Sarearen konektibitate-elementuak eta prozesu horietarako erremintak probatzeko eta egiaztatzeko prozedurak aplikatzea.
- EI1.1 Sare lokal batean konektibitatea egiaztatzeko prozesuaren etapak azaltzea.
- EI1.2 Sare lokal batean konektibitatea egiaztatzeko erabiltzen diren erremintak zerrendatzea, sare lokaletan ezarritako teknologien arabera.
- EI1.3 Sarearen kudeaketa-erreminten funtzionamendu operatiboa azaltzea komunikazio-gailuen egoera egiaztatzeko, erreminten zehaztapan teknikoak kontuan izanik.
- EI1.4 Kasu praktiko batean, sare lokal bat jada instalatuta dago eta baimendutako eta debekatutako konexio-aukerak egiaztatu behar dira, baita partekatutako baliabideetarako sarbidea ere, emandako prozeduren arabera.
- CE1.5 Kasu praktiko batean, sare lokal bat jada instalatuta dago; honako lan hau egin behar da: egin diren proba- eta egiaztapen-prozesuak dokumentatzea, zehaztapan teknikoaren arabera.
- A2: Sare lokalaren komunikazio-elementuen gorabeherari erantzutea eta konponbidea ematea, emandako zehaztapanen arabera.
- EI2.1 Sare lokalaren komunikazio-elementuetan gertatzen diren gorabeherak deskribatzea, erabilitako komunikazio-teknologien eta teknologia horietan sartzen diren elementuen arabera.
- EI2.2 Sare lokalaren komunikazio-elementuetako gorabeherak detektatzeko erabili diren erremintak eta prozedurak zerrendatzea, aurretiaz definitutako kontingentzia-plan baten zehaztapanen arabera.
- EI2.3 Sarean jakinarazitako gorabehera bat eragin duten kausak isolatzeko eta diagnostikatzeko erabiltzen diren erremintak eta teknikak deskribatzea, kontingentzia-planean adierazitakoari jarraiki.
- EI2.4 Sare lokalaren komunikazio-elementuetako gorabeherak ebazteko prozedura sistematikoak azaltzea, gorabehera zein gailutan detektatzen den arabera.
- EI2.5 Behar bezala zehaztutako kasu praktikoetan, sare lokal baten barruan simulatutako matxurak konpondu behar dira, jasotako zehaztapanen arabera eta emandako prozedurei jarraiki; honako lan hauek egin behar dira:
- Gorabeherak detektatzeko sistemak sortu dituen alarmak interpretatzea.
 - Gorabehera eragin duen elementua lokalizatzea.
 - Gorabehera konpontzea aurretiaz ezarritako prozedurak aplikatuta.
 - Gorabehera erregistratzea dagokion dokumentuan.

Edukiak

1. Sare lokalaren konektibitate-elementuen egiaztapena eta proba.

- o Egiaztatzeko eta probak egiteko erremintak.
 - Sistema eragileak egiaztatzeko eta probatzeko erremintak.
 - TCP/IP komandoak.
 - IP konfigurazioa lortzea.
 - Konexio-probak egitea.
 - Erantzunak interpretatzea.
- o Sare lokalaren konektibitate-elementuak egiaztatzeko eta probatzeko prozedura sistematikoak.

2. Sare lokal batean gerta daitezkeen gorabehera-motak.

- o Gorabeherak loturaren konektibitatean.

- Gorabeherak sarean.

3. Sare lokaletako gorabeherak detektatzea eta diagnostikatzea.

- Sare lokaletan komunikazio-gailuen diagnostikoa egiteko erremintak.
- Sare lokaletan gorabeherak kudeatzeko prozesuak.

4. Pare-kable bihurrituak eta kable ardazkideak egiaztatzea.

- Kableak egiaztatzeako erreminten kategoriak.
- Kable-aztergailuak edo egiaztargailuak.
 - Ezaugarriak.
 - Pare-kable bihurrituak egiaztatzeako prozedura.
 - Zirkuitu irekia.
 - Zirkuitulaburra.
 - Hari gurutzatuak.
 - Pare gurutzatuak.
 - Pare zatitua.
 - Telefono-tentsioak detektatzea.
 - Zubi-deribazioa.
 - Ethernet-atakak detektatzea.
 - Kable ardazkideak egiaztatzeako prozedura.
 - Ethernet bidezko elikatzea detektatzeako prozedura.
 - Kableak lokalizatzeako prozedurak, tonuak erabilia.

5. Sareko gorabeherak egiaztatzea eta konpontzea.

- Egiaztapen-erremintak.
 - Honako hauekin loturiko arazoak detektatzea:
 - Trama luzeak eta laburrak.
 - Gehiegizko trafikoa.
 - Netware.
 - TCP/IP
 - Hosta konfiguratzeko.
 - Izenak erabakitzea.
 - NetBIOS.
 - Konexioa http-zerbitzariarekin edo proxyarekin.
 - Konexioa posta-zerbitzariarekin.
 - Konexioa inprimatze-zerbitzariarekin.
 - Beste batzuk.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF854: Sare lokal baten nodoen instalazioa eta konfigurazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Sistema mikroinformatikoak